

MINBIZIAREN AURKAKO ESPAINIAKO ELKARTEA (aecc): IKERTZAILEENTZAKO LAGUNTZAK (2017)

Xedea:

Deialdiaren helburua da laguntzak ematea doktorego ondoko prestakuntza duten ikertzaileei, minbiziaren gaineko ikerketa proiektu bat egin dezaten Espainiako zentro batean, laguntasuna emateko beren ikerketa ildoak sortzera eramango dituen ibilbide zientifikoan.

Laguntzen ezaugarriak:

- Kontratua bi urterako izango da, eta beste bi urte luzatu ahal izango da salbuespenezko kasuetan.
- Diru laguntza izango da 50.000 euro gordin urtean, gizarte segurantzaren kostua barne.
- Diru laguntza jasoko duenari arduraldi eskusiboa eskatuko zaio, eta ezingo du jaso beste inolako finantziatorik.

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

- a. Eskatzaileek doktore titulua izan behar dute laguntzak esleitzeko unean.
- b. Doktore titulua lau urte baino lehenago lortutakoa izan behar da, eta gutxienez doktorego ondoko lan bat eginda izan behar da.
- c. Eskatzaileek bi ikerketa artikulua izan behar dituzte argitaratuta edo onartuta nazioarteko aldizkari batean, parekoen ebaluazioarekin, eskariak aurkezteko unean. Berrikuspenak, liburuen kapituluak edo patenteak ez dira hartuko kontuan.

Pertsona bakoitzak eskari bakarra aurkeztu ahal izango du deialdi honetara.

Proiektuaren zuzendariak bete beharreko baldintzak:

Proiektuaren zuzendariak pertsona bakar bat abalatu ahal izango du deialdi honetan.

Eskariak aurkezteko azken eguna:

2016ko abenduaren 12a, 15:00ak arte

Eskariak aurkezteko era:

Eskariak AECC Fundazio Zientifikoaren web plataformaren bidez aurkeztu behar dira: <https://fundacioncientifica.aecc.es/login>. Eskatzaileak izango du eskaria modu eta epean aurkezteko ardura.

Eskariekin batera dokumentu hauek aurkeztu behar dira, webgunean agertzen diren erduei jarraituta:

- a. Eskatzailearen CV
- b. Doktore titulua
- c. NAN edo indarrean dagoen bizileku baimena eta pasaporte
- d. Proiektuaren zuzendariaren CV
- e. Memoria zientifikoa
- f. **UPV/EHUko Ikerketaren arloko errektoreordeak sinatutako** onespenez gutuna

GARRANTZITSUA: Ez da egongo eskariak zuzentzeko aukerarik; hortaz, ezetsi egingo dira

ondo bete gabe aurkezten diren edo baldintzak betetzen ez dituzten eskariak.

Ikerketaren arloko errektoreordearen onesp en gutuna lortzeko prozedura

AZKEN EGUNA	ARDURADUNA	IZAPIDEA
2016ko azaroaren 30a Aipatutako egunetik aurrera ez da bermatzen epearen barruan bidali ahal izango direnik ordezkari legalaren abala behar duten dokumentuak	Eskatzailea	"Carta grupo receptor" bidaltzea, beteta eta taldeko ikertzaile nagusiak sinatua, pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbidera
2016ko abenduaren 2a	Ikerketaren arloko Errektoreordetza	Ikertzaileari itzultzea errektoreordeak sinatutako "Carta grupo receptor"
Eskaria aurkeztean:	Eskatzailea	Dokumentu guztiak bidaltzea pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbidera, artxibatu eta jarraipena egin dezaten.

Informazioa AECC Fundazio Zientifikoan:

Tel.: 91 310 82 54

e-mail: fundacion.cientifica@aecc.es

Informazioa UPV/EHUn:

Tel.: 94 601 80 08

e-mail: pre-postdoc.dgi@ehu.eus

Informazio gehiago:

<https://fundacioncientifica.aecc.es/tramites/TR0000000838>